

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****KONTSUMOBIDE**

1. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak sustatu eta babesteko toki-erakundeentzako eta haiek
sustatutako erakundeentzako laguntzak 2
2. Kontsumitzaile-elkarteei dirulaguntzak ematea funtzionamenduko eta laguntza juridikoko
gastuak ordaintzeko 3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak sustatu eta babesteko toki-erakundeentzako eta haiek sustatutako erakundeentzako laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 26koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez oinarriak eta deialdia argitaratzen baitira dirulaguntzak emateko toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak susta eta babes ditzaten, 2024ko ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023005787>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024004797>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko eta Kontsumitzaileei Informazioa Emateko Udal Bulegoetarako (KIUB) zentro eta zerbitzuen argitalpenak editatu eta zabaltzeko jardueren funtzionamendua eta gauzatzea babestea, kontsumoa ikuskatzeko jarduerak egiten laguntzea eta Kontsumitzaileei Informazioa Emateko Udal Bulegoetarako zentro eta zerbitzuen instalazioa, eraberritzea, handitzea, ekipamendua edo kokapena aldatzen laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

Deialdia hainbat urtetarako da, eta justifikazioaren dokumentazioa aztertzen ari gara, gainerako % 25a ordaintzeko. KIUBek arrakastaz lortu dituzte deialdiaren helburuak eta xedea, eta kontsumitzaileek beharrezko aholkularitza eta bitartekaritza jaso dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Irekitako bulegoen kopurua	38	35
Erantzundako kontsulten kopurua	30.400	32.986
Egindako erreklamazioen kopurua	13.000	12.999
Ikuskatzaileen kopurua	12	11
Ikuskatutako sektoreen kopurua	40	48
Ikuskapen-jarduerak egiten dituzten KIUBen kopurua	9	4
KIUB berrien kopurua	1	0
Ekipamendua handitu, hobetu edo berritzen duten KIUBen kopurua	7	3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kontsumitzaile-elkarteei dirulaguntzak ematea funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordaintzeko

2.- Araua

Ebazpena, 2023ko abenduaren 20koa, Kontsumobide-kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, seinaren bidez argitara ematen baitira kontsumitzaileen erakundeei 2024ko ekitaldian dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305786e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/12/2305786a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kontsumitzaileen erakundeen funtzionamendu orokorra babestea, erreklamazioei erantzuteko eta horiek kudeatzeko, bai eta kontsumitzaileei emandako laguntza juridikoa ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean.

Urte anitzeko deialdia denez, une honetan izapidetzen ari da dirulaguntzaren gainerako % 25a ordaintzea justifikatzen duen dokumentazioa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Emaitza
* Irekitako bulegoen kopurua	8
* Erantzundako kontsulten kopurua	7.687
* Erantzundako erreklamazioen kopurua	3.451
* Egindako ekintza judizialen kopurua	616

* 2024ko memoriari buruzko datuak